

ANTZERKIA. Eskiulak 1992. urtean eman zituen azkenik, eta Gamere-Zihigan bazen mende bat ez zituztela egin

Bi maskaradak 22 herritan ibiliko dira

Eskiulako maskaradak gizonezkoz soilik osatuak izango dira, orain dela 10 urte emakumezkoak bakarrik aritu baitziren

Allande Sokarros | MAULE

Bi maskarada ibiliko dira aurtentzen, Zuberoako 21 herritan eta Nafarroa Behereko bakarrean —Donaixti-Ibarren—, urtarrilaren 13tik hasita. Zenbaiten iritzian, ez da pozik izaterik bi maskarada daudelakotz, baina bi herrien artean antolatzea ezinezkoa izan denez, halaxe izango da aurtentzen. Lehen ere horrelakorik gertatu izan da, hala nola 1992an, Altzürükük eta Eskiulak egin baitzizuten.

Aurtengo bi herri egileetatik bata, hain zuzen, Eskiula da berriro ere, eta bigarrena, aldiz, Gamere-Zihiga. Azken honek maskaradak egitea nahiko aipagarria da, zeren eta mende bat baitzen ez zirela izan 120 bizilagun dituen Basabürükoko herri honetan. Ez dute merezimendu eskasik, beraz, apustu honi eusteko. Guztia behar zuten egin, dantzari talde bat osatzetik hasita, horrelakorik ez baitzen Gamere-Zihigan.

Suerteza izan dute Zihigan ez-konduta izatea Altzai herri auzoko dantzari hoberenetatik bat; hau Beñat Etxebarne *Lüküzilo* da. Honek ditu eskolatu, hila eta hila, aurtengo maskaradetako aitzindari gorri saldoko zortzi lagunak, baita beste arizaleak ere, ez baita ahaztu behar maskaradetako kide guztiak jakin behar dutela gutxi edo aski Zuberoako dantza-jauziak ematen. Beñat Lüküziloren lana nabaritu da, seguraz ere, datorren igandean Gameren bertan eta ondoren Zuberoako beste 12 herritan agertuko diren maskaradetan.

Gamere-Zihigakoan 35 lagun, neskak eta mutilak

Dantzarietz gain, meritu handia izango dute, halaber, maskaradetako beste arizaleek ere, mende bat baitzen, beraz, ez zela maskaradarik egin Gamere-Zihigan. Guztira, 35 lagun arituko dira jokoan, neskak eta mutilak nahastuta. Zuberoako eta baita beste euskal herrialdeetako ikusleek ere hainbeste preziatzen duten *Pitxu* sasi-pailazoren jokan Philippe Axigarrek jardungo du, hain zuzen ere *Axigar* etxeak. Zuberotarrek oso gustukoa duten *peredikü* edo mintzaldi xebearen emaile izango da Philippe Petit *Apoloborro*, *Kabana Handia*.

Munduan zehar gertatutakoak aipagai izango dituen *Buhame Errege* jardueran Battitta



CHRISTOPHE DE PRADA SAMARUTI
Iaz Ligi-Athereiko eta Lexantzükoko gazteek zituzten eman maskaradak Zuberoan zehar, arrakasta handiz.

Zuberoako maskaraden agerraldiak

○ Eskiulako maskaradak ◆ Gamere-Zihigako maskaradak



	Eskiulako maskaradak	Gamereko maskaradak
Urtarrilaren 13an	Eskiula	Gamere
Urtarrilaren 20an		Urdiñarbe
Urtarrilaren 27an	Donaixti	Ligi-Atherei
Otsailaren 3an	Iruri	Barkoxe
Otsailaren 10ean	Garindaine	Alzai
Otsailaren 17an	Muskildi	Atharratze
Otsailaren 24an	Montori	Arrokiaga
Martxoaren 3an	Atharratze	Altzürükü
Martxoaren 10ean	Urdiñarbe	Aloze
Martxoaren 17an	Lorraine	
Martxoaren 23an	Gotaine-Irabarne	
Martxoaren 24an		Zalgize
Martxoaren 31n	Barkoxe	Idauze
Apirilaren 7an	Lakarri	Santa Grazi
Apirilaren 17an		Sohiuta-Hoki

Axigar arituko da, Allande Ager *Petitak* eta Maider Ager *Agerriakoak Jauna* eta *Anderea* dotoreak antzeztuko dituzte. Kantu-xaramelaz ariko diren *Xorrotxak*, aldiz, Nicolas Urruti eta Beñat Claverie izango dira.

Eskiula herrian, berriz, maskaradak antolatzeke ausardia ez zen Gamere-Zihigan baino

askoz ere gutxiagokoa izan behar. Ezen Biarmoko lurretan kokatua den 520 biztanleko herri honetan dantzariak badaude aspalditik, bereziki Lerdu anaiek egindako lan handiari esker. Hamar urte soilikigaro da azken maskaradak egin zirenetik eta ohiturak bizi-bizi daude oraindik. Hala ere, erronka oso berezi

bati ekin nahi izan diote eskiulatarrek, hots, gizonezkoz bakarrik osatuak izango diren maskaradak egiteari. Ez pentsa, hatik, Eskiulan, tradiziozale atzerakoiak bihurtu direnik, ezta gutxiago ere! Aukera honen azalpena da orain dela 10 urte agertu ziren maskaradetako arizaleak emakumeak soilik zirela

MENDEKO ETENALDIA

Ehun urte bazen ez zutela maskaradarik eman Gamere-Zihigan, eta dena zuten egin beharrekoa, dantzak ikastetik hasita

GIZALDI ELKARTASUNA

Eskiulan, belaunaldien arteko elkartasuna dela eta, 1992ko zein 1983ko maskarada egileek eman diete laguntza aurtengoei

eta gizonezkoek, nola edo hala, errefera eman nahi izan dietela!

Belaunaldien arteko elkartasuna Eskiulan

Eskiulako ezaugarrietatik bat da, halaber, belaunaldien arteko elkartasun ohitura bat bada-goela. Hala, 1992ko emakume maskaradakeriek eta baita 1983an egin ziren maskarada mistoetakoek ere lagundu diete aurtengoen antolatzaile eta jokalariari. Laguntza eskerga eman dieten horien artean hauek aipa daitezke: 1992ko maskaradetako *Kabana Handia* izan zen Lucien Xabalgoiti.

Belaunaldien arteko katea eten ez den seinale da, halaber, Maddi Lexardoiren seme Ximun Lexardo *Erreka* izango dela *Buhame Jauna*. Kabana jokoan David Tillous arituko da, *Pitxu* egitea Jean Arani tokatu zaio, Ludovic Carrillo izango da *Jauna* eta Franck Perreil, aldiz, *Anderea*. Azken hau, beraz, emakume itxuratan arituko den mutila izango da. *Jauna*-ren ezpata zorrozteko ahaleginetan jardungo duten *Xorrotxak* Henri Castillon eta Didier Mendiundu dirateke.

Alboko maparen zerrendan, irakurlea ohartuko da behar bada azken agerraldiko eguna ez dela maskaradak egiten dituzten bi herrietan gertatzen. Honen azalpena da Gamere-Zihigako maskaraden azken agerraldia Zihigako jaietan izango dela, datorren agorrilean, eta Eskiulakoek, aldiz, apirilaren erditsu horretan egingo dutela.